



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko irailaren 25ean, 451 Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

“IKUSIRIK: Garaion Naturatea Elkartearen helburuak honako hauek dira:

- Araban, Euskaraz sortzen diren ikuskizunentzako euren lana erakusteko espazioa eskaintzea.
- Landa eremuko biztanleei kultur eskaintza aberatsa eskaintzea.
- Garaionen sortzen diren lanak erakusteko espazioa eskaintzea.
- Garaionera datozen ikusleekin harremana sendotu eta finkatzea.
- Eskainiko diren ikuskizunei babes tekniko eta komunikatiboa eskaintzea.
- Landa eremuan kultur jarduerak bizitzeko eskaintza aberatsa sortzea.

GERTUA IZANIK: GARAION NATURARTEA ELKARTEAK 2020ko urtean honako emanaldi hauek burutu eta antolatu ditu:

- .- Sortzaileekin adostutako “sortze bidean” ikuskizun eskaintza.
- .- Inguruko guraso taldearekin sortu berri duten elkartearekin haurrentzako programazioa martxan jarri da.
- .- Ikuskizun eskaintza prestatu dute egun pasatzera joaten diren taldeentzako.
- .- Igande goizetako eskaintza udaberri eta udazkenetan.

GERTUA IZANIK: GARAION NATURARTEA ELKARTEAK 2020ko urtean ere 16 ikuskizunen eskaintza aurreikusi du, hauen artean honako hauek burutu direlarik (uztailean eta abuztuan):

- .- Uztailak 17 – Ane Gebara : Kittorik ez : 1.870,00 €.
- .- Uztailak 31- Bapatean: Adabaki: 1.500,00 €.
- .- Abuztuak 7 – Maite Gebara: Que buen día: 880,00 €.

Guztira. Zuritutako gastuak: 4.250,00 €

Guztira: Zuritutako sarrerak: 0,00 €.

GERTUA IZANIK: Barrundiako Udalak GARAION NATURARTEA ELKARTEA erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 3.600,00 eurotako dirulaguntza luzatu ahalko du (2020ko Aurrekontu Orokorretako 334.481.015 partida).

GERTUA IZANIK: Barrundiako Udalak eta GARAION NATURARTEA ELKARTEA erakundeak, 2020ko irailaren 18an, lankidetzat hitzarmena sinatu dute goian aipatutako jarduera guztiak aurrera eramateko xedez.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- Garaion Naturatea Elkarteari 3.600,00 €tako diru laguntza luzatzea eta ordaintzea.

BIGARRENA.- Aurreneko gastu hori onartzea Aurrekontu Orokorretako 334.481.015 aurrekontu-sailera atxikituz.

HIRUGARRENA.- Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua



bada edo falta bada, edo Udalari erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bazaio, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ezinezkoa izango da ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatu jarraitzea, egitate horien berri jakiten den unetik aurrera, erantzukizunak alde batera utzi gabe. PENALAK, zibilak edo administratiboak.

LAUGARRENA.- Honako erabaki hau Garaion Naturartea Elkarteari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko irailaren 25ean.

O.E.
ALKATEA



A large, stylized handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long tail.